

# Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomia-aren historiaren egoera

**Xabier Alberdi Lonbide**  
Historialaria

Artikulu hau Euskal Herriko Historia Ekonomikoaren esparruan kokatu behar da. Lehenengo eta behin itsas ekonomia zer den definitzen saiatzen da, ondoren kontzeptu horren beharra aldarrikatzeko. Halaber, egoera historiografikoaren balantze kritiko zehatz bat egiten du, Ipar eta Hego Euskal Herriko antzekotasunak eta desberdintasunak erkatuz, gabezia nagusiak seinalatuz eta etorkizuneko erronka nagusien berri emanez. Ororen buru, sintesi orokor baten beharra da azken urteotan hainbat egilek seinalatu duten hutsune nagusia.

The article refers on the economical history of Euskal Herria. First of all it tries to define naval economy and then it claims the necessity of this concept. In the same time, the article makes both a critical and a concrete balance of the historiographical situation, contrasting the samenesses and the differences of the North and the South of Euskal Herria, remarking the principal lacks and presenting the major challenges for the future. The main absence some writers have reached to mark during last years is precisely the necessity of a general synthesis.

Lan honen egilea urte batzuetatik hona XVI. eta XVIII. mende bitarteko Gipuzkoako itsas ekonomiari buruzko doktore-tesi baten egikeran murgildua dabil. Hau da, denbora eta espazio nahiko konkretu batzuetan garatutako gertakariak ditu ikergai eta horrek sekulako beldurra izanarazten du muga horien kanpokoez jardutean. Agian norbaitek pentsa dezake beldur hori arrazoirik gabea dela, edo okerrago, beldur izatearen aitorpen hau ez dagoela ados gai konkretu batez lanean dabilen edozein ikerlarik derrigorrean izan behar duen jakintza-mailarekin. Hau da, Aro Berriko gertakariak ikertzen dituenak nahi eta nahi ez Erdi Aroan izandako aurrekarien berri eta Aro Garaikidean jasotako ondorioen berri zehatza izan behar duela; edo euskal probintzia edo lurralde jakin bateko historiaz diharduen edozein ikerlarik ezinbestean gutxienez gainontzeko euskal lurraldeetan gertaturikoaz jantzia egon behar duela. Beldur honen sorburua ez da aipatutakoa, baizik eta zehazki ikertutakoez gaindiko gauzez jarduteak idazlan honetan azaltzen diren zenbait ideiaen aurka egitean datza. Hau da, aurrerago ikusiko denez, tokian tokiko itsas ekonomiak izandako bilakaera ikaragarri aniztun eta aberatsa da, eta, lan honetan egin nahi den aldarrikapenatariko bat hori izanik, ez dezala inork uler edo pentsa Euskal Herri osorako baliagarri izan litekeen itsas ekonomiaren historia bateratu edo bakar bat egitekoaren aldekoa denik. Beraz bada, idazlan honek erdiko bidea hartuko du, hau da, Euskal Herri osoko itsas ekonomiaren historiaz aritu arren, kronologikoki batez ere Aro Berrira mugatuko da.

Lekua eta garaia zehaztuta itsas ekonomiaren historia definitzetik hasi behar da. Itsas ekonomia, noski, itsasoan garatzen diren jarduerak osatzen dutena da; lehorrean bakarrik garatu ezin diren eta nabigazioarekin lotura zuzena duten jardueraz osatua. Baina, ekonomia orokorretik bereizi ote liteke itsas ekonomia? Hau da, lehorreko ekonomiatik at garatzen den itsas ekonomiarik existitzen al da? Ez noski, bi “munduen” arteko loturak oso estuak dira. Lehorreko basoetako egurrik gabe ezingo litzateke nabigaziorako beharrezko diren ontzirik eraiki, ez eta lehorreko nekazaritza eta industria-ekoizpenik gabe itsas merkataritza eta garraiorik garatu, eta are gutxiago lehorreko biztanle ugarien eskaririk at arrantza-sektorerik indartu. Hala eta guztiz ere, esan beharrezkoa da munduan oso jarduera gutxi garatzen direla gainontzekoetatik aparte, egoera “autonomo” hori agian historiaurreko ekonomia garapen-mailan aurkitzen diren gizarteetan bakarrik aurki daitekeelarik. Gainontzeko gizarteetako talde desberdinek darabiltzaten jarduera ekonomikoak ezin uler daitezke, maila batean edo bestean, beste giza talde batzuekin izandako harremanik gabe. Hau guztia noski, gauza jakina da eta ez du inoiz oztopo izan behar sektore ekonomiko edo jarduera bakan baten inguruko ikerketak garatzeko orduan, ikerlariaren lanatariko bat gainontzekoekin dituen harremanak aurkitzea eta finkatzea izan behar baita.

Beraz, itsas ekonomia soilaren inguruko ikerketak posibleak izateaz gain hura osatzen duten jarduera eta sektore desberdinek historian zehar izandako bilakaerari buruzko ikerlanak betidanik landu ditu historiografiak. Dena dela aipatu behar da, aurrerago ikusiko denez, ikerlan gehienek jarduera konkretu batzuek edo besteaz dihardutela, hau da, itsas ekonomia osatzen duten zatiez. Ondorioz itsas jarduera batzuek nahiko informazio badugu ere, beste batzuek oso gutxi dakigu, eta egoera hau oso arriskutsua gerta liteke jarduera desberdinek historian zehar

izandako gorabeherak interpretatzeko garaian. Itsas jarduera konkretu batez diharduten ikerlan askok eta askok jarduera horrek lehorreko edo barrualdeko ekonomia eta gizarteekin dituen harreman estuak ikertzen dituen bitartean, gehienetan kostaldean garatzen ziren gainontzeko itsas jarduerekin zituen harremanak ez dira aintzat hartzen. Adibideak oso ugariak eta ezagunak dira. Konparazio baterako, ezagunak dira nolabait Sevilla aldera esportatzen zen burdinaren komertzializazioaren inguruko xehetasunak; badakigu barrualdean ekoizten zen burdina nola eta nortzuk eramaten zuten kostako kaietara, badakigu kostako merkatariek Sevillan bizi zirenekin zituzten merkataritza-harremanen bitartez iristen zela burdina hara, badakigu ordainez barrualdera hainbat merkataritza-produktu iristen zirela eta abar. Hau da, laburbilduz, gutxi gora behera burdinaren komertzializazioaren inguruan kostalde eta barrualdearen artean sortutako ezinbesteko harremanen berri badugu. Baina ba al dakigu ezer jarduera honek, hau da, burdinaren inguruko itsas merkataritza eta garraioak, gainontzeko itsas jarduerekin zituen, eta *ezinbesteko* diren, harremanez? Burdingintza urtarokako jarduera bat izanik inork pentsatu al du bere esportazioan horrek izan zezakeen eraginaz? Hau da, burdin ekoizpen gutxi zegoen urtaroretan zer egiten zuten hura garraiatzetik bizi zirenek, zain egon? Udaberria eta udazkena bitartean itsasoz handiko bale edo bakailao-arrantzara joaten ziren milaka marinelek zer egiten zuten negu partean, egon? Egin dezagun galdera hau alderantziz, inork pentsatu al du itsas merkataritza edo itsasoz handiko arrantza bezalako jarduera garrantzitsuek urtaroen eraginez edo gizakiak sortutako gertakarien (adibidez eraso armatuak) ondorioz izaten zituzten geldialdien ondoren berriz jardunean hasteko beharrezko zituzten ehunka marineletatik bat ere ez zutela aurkituko bitartean beste jarduera batzuetan bizimodua aurrera aterako ez balute?

Ondorioz, aldarrikatu beharrekoa da itsas ekonomia bereizi, ez independente, baten existentzia. Kostaldeko herrietan itsas ekonomia bat badela eta berarekin lotura zuzena duten gizarteak badirela, nahi eta nahi ez kontuan izan beharreko ebidentziak izan behar dute edozein itsas jarduera konkretu ikertu nahi duenarentzat. Agirreazkuenagak 2002 urtean UEUK argitaratutako historiografiari buruzko liburuan dioen bezala beharrezkoa da “kostalde-ikuspegiko historia” lantzea Euskal Herriko historiografiak aurrera egiteko ezinbesteko dituen bide berriak zabaldu ahal izateko; are gehiago itsasertzeko euskaldunentzat “itsasotasunak” lurraldetasunak adinako garrantzia duela aipatzen du<sup>1</sup>, zenbaitentzat gehiagokoa duelarik. Ez dugu itsasertzeko norbanakoen itsasotasun eta lurraldetasun sentimenduei buruz gehiago jardungo, hau, bera bakarrik, ikerketa oso baterako gaia baita eta itsas ekonomiagandik pixka bat aldendu egiten zaiguna, dena dela aurreaxeago itzuliko gara gai honen inguruko azalpen batzuk egitera. Agirreazkuenagak azaltzen duen behar hori, hau da, itsas historia, eta noski bere barne itsas ekonomiaren historia, garatzearen beharra ez da berria euskal historiografiaren baitan. Euskal historiografiaren berrikuntzaren hastapen-garaietatik urte gutxira,

---

1. Gogoeta hau euskal historia “nazional” bat garatu ote litekeenaren erantzun bezala planteiatzen du. Piska bat aurreaxeago zera dio: “...Zerk bihurtzen du nazional historialarien diskurtso historikoa? Zein gai dira nazionalak? Politikagintzaren eta ideia intelektualen arlokoak edo kultur arlokoak soilik? Erantzunetako bat hauxe izan daiteke: lurraldetasunak. Baina nork eta zerk markatzen du lurraldetasuna? Itsasbaterreko euskaldunentzat, itsasotasunak lurraldetasunak bezainbesteko garrantzia du...” (J. Agirreazkuenaga, 2002: 165-166).

1983 urtean *Historia de la Economía marítima del País Vasco* izeneko liburua argitaratu zen. Liburu honen sarreran Aingeru Zabalak, geroago Joseba Agirreazkuenagak dioenaren antzera, euskal itsas ekonomiaren historiari buruzko osoko lanen beharra sentitzen du. Itsas jarduera desberdinen inguruko ikerketa ugari sortzen ari ziren urte haietan, besteak beste gogoratu Shelma Huxley-ren itsasoz handiko arrantzaren historiaren inguruko ikerlan aberatsa, Aingeru Zabalak euskal Itsas Ekonomiaren Historia bere osotasunean ikertu beharra aldarrikatzen du. Ederki ikusten du gainera ikerketa horiek erabili behar duten prozedura, izan ere garbi azaltzen du itsas ekonomia osatzen duten alde guztien ikerketa sakon baten ondoren behar-beharrezko dela sintesi-lan bat egitea<sup>2</sup>.

Urte horretan bertan argitaratu zuen Zabalak bere ikerlan nagusienetarikoa den *El comercio y tráfico marítimo del norte de España en el siglo XVIII* delakoa. Ikerlan honetan, gai nagusitzat itsas merkataritza duen arren, aurreko lanean aipatutako gogoia betetzen saiatu zen nolabait, hau da, itsas ekonomia osotasunez ulertzen eta lantzen. Horren adierazgarri, itsas merkataritzaren gorabeherak ulertzeko eta azaltzeko gainontzeko itsas jarduerekin zituen harremanak ere landu zituen. Hortik datorkio agian bere ikerketari, argitaratzeko garaian, beste izenburu bat bilatzeko beharra, eta aukeratutako izenburu berria benetan esanguratsua da: *La función comercial del País Vasco en el siglo XVIII*. Hau da, Euskal Herriko itsas merkataritzak Espainiako iparralde osokoan izan zuen garrantzi erabakigarria aldarrikatzen du Zabalak izenburu berri horren pean argitaratutako ikerlanean<sup>3</sup>.

Azken aldarrikapen honetatik zera datorkigu berehala gogora, itsas ekonomiak euskal ekonomia orokorrean izan duen garrantzi erabakigarria, Agirreazkuenagak aipatutako idazlanean dioen bezala, gutxienez joandako 1000 urte hauetan. Beraz bada, behin eta berriz euskal historiografiaren berrikuntzaren aitzindarietako bat izan zen Luis María Bilbaok aipatutako kontzeptu nagusi baten inguruan gabiltza jiraka. Hau da, gutxienez gure herriko zati atlantikoari dagokionez, Euskal Herria “garraio-herri edo *país de acarreo* bat izan zela Aro Berrian zehar eta bertan garatu zen ekonomi eredia “kanpotik induzitua” zela, bertako nekazaritzak ase ezin zuen eskaria bigarren eta hirugarren sektoreetako ekoizpenen esportazioarekin betetzen baitzen<sup>4</sup>. Laburbilduz, Euskal Herriko itsas ekonomiaren historia baten garapena posiblea ez ezik behar-beharrezko ikerlantzat aldarrikatu behar da euskal historiografiak benetan aurrera egitea nahi baldin badugu. Iraganeko edozein gai behar bezala ulertu eta ikertu nahi badugu, Euskal Herrian itsas jarduerak izandako sekulako garrantzia eta pisua ezin dira alde batera laga.

### Laburpen historiografikoa

Agirreazkuenagaren aipatutako artikulua azaldu baino urte gutxi lehenago, 1996an Donostiako Ontzi Museoa *Itsas Memoria* izeneko bere aldizkariaren lehenengo alea argitaratu zuen. Azpi-izenburutzat *Euskal Herriaren itsas historiari buruzko ikerketen gaur egungo egoera* duen ale honetan, Erdi Arotik hasi eta

---

2. “...Sin embargo la economía marítima de nuestro país sigue necesitada de un análisis válido, estudio que partiendo de los clásicos, profundice primero en aspectos parciales para después proceder a la necesaria e imprescindible labor de síntesis...” (A. Zabala *et al.*, 1983: 9).

3. A. Zabala, 1983.

4. L. M. Bilbao, 1979: 134-143. Ikusi baita ere: E. Fernández de Pinedo, 1974.

ondorengo aroetan garatutako euskal itsas historiak diharduten ikerketa historiko, arkeologiko eta antropologikoen gaur egungo egoeraz gain, garai desberdinetan itsas jarduera konkretuen —itsas merkataritza, ontzigitza, garraioa, arrantza...— historiari buruzko egoeraz, arlo bakoitzeko zenbait espezialistak egindako idazlanak biltzen dira. Besteak beste aipatzekoak dira Elena Barrenaren Erdi Aroko itsas historiaren gaur egungo egoerari buruzko artikulua, José Luis Casado Soto-ren Aro Berriari buruzkoa, Manuel Montero-ren Aro Garaikideari buruzkoa, Shelma Huxley-ren ikerketetan erabili beharreko metodoei buruzkoa, Jose Antonio Azpiazuren XVI. mendeko itsas historiaren ikerketarako iturriari buruzkoa, Montserrat Garateren XVIII. mendeko itsas merkataritzaren historiografiari buruzkoa, eta abar. Ikertzaile gehienek itsas historiari buruz islatzen duten itxura da joandako hogeit hamar urte hauetan arlo konkretu batzuetan, hau da jarduera konkretu batzuen historiaren ikerketan, aurrerapen azpimarragarriak izan baldin badira ere, oraindik hutsune eta eginbehar asko geratzen dela egiteke.

Batez ere itsas historia orokorki ikertzen duten lanen beharra aipatzen da<sup>5</sup>.

Beraz, joandako urte hauetan guztietan ez ote du bada itsas historiaren ikerketak garapen esanguratsurik izan Euskal Herrian? Agirreazkuenagak orain bi urte, duela zortzi urteko *Itsas Memoria* aldizkariko lehen aleak eta orain dela hogeita bat urteko Aingeru Zabalaran lanak ikusten zuten falta berbera aurkitzen du. Ez da zuzena esatea urte hauetan guztietan ez dela aurrerapen garrantzitsurik izan itsas historiaren eta, guri dagokigunez, itsas ekonomiaren historiaren ikerketan. Aurrerapausoak izan, badira, baina egia da baita orain dela hogeita hamar urteko hutsune berdinekin jarraitzen dugula ere, edo historialariok ez dugula behin eta berriz itsas historiaren egoerari eta historiografiari buruzko lanetan aipatzen diren hutsune eta beharrei aurre egiten jakin izan<sup>6</sup>. Ez dugu gai honi buruzko

---

5. Benetan esanguratsua da aldizkariaren zuzendarietako bat den José María Unsainek dioena lehen ale honen sarreran: "Euskal Herriko itsasoari buruzko ikerkuntza garatzen laguntzeko asmoz sortzen da Itsas Memoria. Gogoan izanik Euskal Herriko historiaren puska handi batek ezaugarritzat duela itsasoarekin harreman estua izatea, eta itsasoa izan dela gure herriaren aztarrenak eta proiektzio historikoa argien erakutsi diren agertokia, guztiarekin ere, ikertzaileek ez dute espero bezalako jakinminik agertu ezagutza arlo horrekiko. Bat ez etortze hori, hau da, itsasoak Erdi Aroko garaietatik euskal gizartearen moldaeran halako garrantzi historikoa edukitzea, eta gaiaren ikerkuntzari halako arretra txikia jartzea, lehendik ere agerian jarria zuten autore batzuek, hala nola, Caro Barojak (1974) edo Tellechea Idigorasek (1987). Gaur egun, ordea, ezin ukatuzkoa da ikerketa eremu horretan asko aurreratu dela, baina oraindik hainbeste gabezia eta hainbeste muga daudenez, irismenetik aski urrun daukagu ikuspegi artikulatu batetik begiratutako itsas historia bat, osotasuneko zentzuaz mamitua eta historiaren ibilbide orokorraren esparruan kokatua..." (J.M. UNSAIN, 1996: 8).

6. Esandakoaren lekuko, begiratu aruten *Historia del País Vasco* izenburupean argitaratu berri den Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeen historiari buruzko eskuliburua. Lehenengo aleak, Erdi Aroari dagokionez, dakarren aurkezpenean lanaren nahia "...llega un momento en que se siente la necesidad de hacer un alto en la investigación para difundir de manera sintética lo que se sabe y, cómo no, las dudas e interrogantes aún existentes..." egitea dela aitortzen da. Baina bigarren aleari begiratu gero, Aro Berriari, hau da, euskal itsas jarduerak historiako zabalkuntza eta garrantzia handienera iritsi ziren garaia dagokiona, ikusten da itsas ekonomiaren inguruko gaiak azaletik ukitzen direla. Aipamenak han eta hemen daude banatuak, batzuetan ia testuingurutik kanpo dauden eranskintxo modura, eta aipatuak izateko "suerte" izan duten jardueren arteko harremanak eta loturak inolaz ere zehaztu gabe. Hau da, azken urteetan berrikuntzak izan arren, beste behin orokorkeria da nagusi, ez bakarrik leku konkretu batzuetako gertakariak kostalde osora zabalduaz, baizik eta, okerrago dena, kronologia zehatz batzuetan garatutako prozesuak Aro Berri osorako erabiliz. Honela, adibidez, Frantziaren eta Espainiaren arteko harremanak ukitzerakoan ez dira *Conversak* aipatu ere

historiografiaz gehiegi sakonduko. Ez da egokia orain lantegi honekin hastea, gainera orain arte aipatutako lanek egina dute eta haiek kontsultatzea besterik ez dago itsas ekonomiaren historiaren egungo egoeraren berri izateko. Dena dela, laburpentxo bat egitea beharrezkoa da orain arteko aurrerapenen eta aldi berean, behingoz, aipatutako hutsuneen berri izateko, hau da, itsas ekonomiaren historiaren egungo egoera zein den ezagutzeko.

Itsas ekonomiari buruzko Euskal Herri osoko historiografiari begirada azkar bat emanaz gero berehala bi egoera edo errealtate bereizten dira: Ipar Euskal Herrian, hau da, Frantziako estatuaren pean dagoen zatian egindako produkzio historikoa eta Hego Euskal Herrian, Espainiako estatuaren pean dagoenean, egindakoa. Bidasoaren bi aldeetako ikerketa-mailak nahiko desberdinak dira eta esan daiteke iparraldean itsas ekonomiaren historiaren egoera oso aurreratua aurkitzen dela hegoaldekoarekin konparatuz; izan ere, azken urteetan egindako ikerketa-multzoaren ondorioz, Lapurdiko itsas ekonomiaren historiaren sintesi orokor eta bateratu batera iritsiak daude bertako ikerlariak. Honek ez du esan nahi hutsunerik nabarmentzen ez denik Ipar Euskal Herriko historiografian; hutsune edo muga horien jatorrietako bat, gainera, geroxeago ikusiko denez, Euskal Herriko itsas ekonomiaren historia bere osotasunean ez begiratzea delarik. Hegoaldean oraindik lurralde historiko bakoitzeko itsas ekonomiaren historiaren sintesirik egitea ez da lortu. Aurrerapen esanguratsuenak aktibitate konkretu batzuen ikerketan egin dira, baina beste zenbait aktibitatek izandako bilakaerak ilunpean jarraitzen du eta gehienetan jakinduria-mailako hutsune hauek orokortasunak eginaz betetzen saiatzen gara oraindik.

Dena dela, sakonxeago begiratzuz gero bi egoera hauek jatorri osagarri edo joera historiko berdinen baten bi ondorio desberdin direla konturatuko gara. Euskal Herri osorako baliagarri izan daitekeen “historia nazional” horietako bat egin ahal izateko, hau da, bilakaera historiko hain desberdin eta kontrajarria izan duten lurraldeen arteko nolabaiteko lotura, edo delako konstante historiko, edo euskal lurralde guztien osotasunerako baliagarri izan litekeen kontzeptu bateratzaile bat, agian, zera izan liteke, mugatasuna. Historia hasi zenetik, hau da euskal lurraldeak historiaurretik historiara pasa zirenetik beti muga izan dira, egitura politiko desberdinen arteko muga. Egitura politikoak etorri eta joan dira, eta etorriko dira berriak..., baina euskal errealtate komun batek hor dirau. Inoiz pentsatu al dugu euskal nortasunen eta kulturen —pluralean— biziraupena agian horren ondorioa dela? Inoiz inongo egitura politiko baten pean osokiro —Erromako Inperioaren pean ere probintzia desberdinetan izan ziren sakabanatuak eta probintzia bakoitzean ere “Conventus” desberdinetan— ez egotearen ondorioa dela? Baliteke, izan ere egitura politikoek ezartzen dituzten aginduentzat mugak pareta modukoak baitira. Baina aldi berean mugak batez ere pasaera bideak, komunikazio eta erlazio guneak dira; Europako mendebaldeko muturrean batetik bestera ibili den

---

egiten, Bidasoako mugaren bi aldeetako itsasoz handiko arrantza bezalako jardueren biziraupenerako hain erabakiorrak izan zirenak. Geroxeago ordea guda-ontziteriarako marinelen itsasorapenak ikutzerakoan, gehiagoko azalpenik eman gabe, esaten da: “...En otros casos, como sucede en Guipúzcoa, donde muchos se enrolaban en barcos laboranos para eludir sus deberes con la Armada, el Rey prohibió a los guipuzcoanos que se embarcasen en barcos extranjeros...”. Ez da aipatzen gainera gertakari hau XVIII. mendekoa dela eta aurreko mendearen azken bi herenetan gipuzkoarrak Armadaren itsasorapenetatik at gertatzeko pribilegioa izan zutela. (R. Porres Marijuán, 2004: 87-89).

zein herri ez da Euskal Herritik igaro? Gertakari hau izan liteke euskal kultura eta historiaren beste kontzeptu bateratzaile horietako bat izan daitekeenaren sorburuetako bat. Izan ere, euskal lurraldeetako sinetsi ezinekoa den aniztasun historikoa eta kulturala izan liteke, paradoxa badirudi ere, bigarren kontzeptu bateratzaile bat. Beraz bada, Ipar eta Hego Euskal Herriko historiografiaren arteko desberdintasunak mugatasun eta aniztasun horren isla besterik ez dira. Beraz, bi errealitate desberdin hauek bateratzen dituen bilakaera historiografiko komun bat egitea posiblea da, beti ere mugatasuna eta aniztasuna kontuan izanez.

Euskal Herriko itsas ekonomiari buruzko historiografia bi prozesu nagusiren ondorioa dela esan daiteke: batetik Mendebaldeko Europako nazio nagusienetan garatu zen joera estrukturalista edo egituren azterketan oinarritutako joera historiografikoa, eta bestetik Espainiar estatuan XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera jorrotutako berrikuntza historiografikoa. Lehendabiziko joeraren iturburu eta ekoizgune garrantzitsuenetako bat Frantzia izanik, bertan garatu baitzen *Annales* eskola historiografikoa, joera honek eragin zuzena izan du Ipar Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren ikerketan. Ondorioz, lehen aipatu dugunez, gai honetan behintzat, ikerketa- eta jakintza-mailak askoz ere aurreratua goak daude hegoaldean baino. *Annales* eskolaren gogoa, hau da “historia osoa” egitearena, horretarako leku eta garai jakin batetako historia banaka-banaka aztertzen diren egituretan —ekonomia, gizartea, politika, kultura, erlijioa, ohiturak...— sailkatuz, nolabait gauzatu ahal izateko testuinguru garrantzitsu bat itsas historia izan zen. Hala kai edo portu konkretuen historia-ikerketak egiteko joera zabaldu zen eskola honetako kideen artean. Metodologia desberdinak erabiliz oso ezagunak ditugu Chaunutarrek Sevillari buruz egindako lana, Heers-ek Genoari buruz, Carrière-k Marseillari buruz, Bonnard-ek Nantes, Delumeau-k Saint-Malo, Bernard-ek Bordele, eta abar. Joera honekin batera *Annales* eskolaren inguruko beste ikerlari batzuek itsas jarduera konkretuen historia garatu zuten, batzuek, Mollat-en antzera Frantzia osoan lekututako ikerlan zabalak eginaz, eta besteak, Cabantous, Turgeon, eta abar, portu edo herrialde konkretu batzuetara mugatuz. Dena dela, jarduera konkretuez diharduten ikerlan hauek, *Annales*en eragin zuzenaren ondorioz, testuinguru ekonomiko, sozial, politiko, eta abar, zabal baten barne lekutzen dituzte bere ikergaiak, hau da denen lanaren ondorioz sintetizatzea lortu zuten lekuan lekuko itsas ekonomiaren historia orokor baten testuinguruan.

Esan dezakegu bada, *Annales* eskolaren baitan Frantzian benetako itsas historia bat garatzea lortu zela. Eta honek eragin zuzena izan du Ipar Euskal Herriko itsas gaiak ikertzen dituen historiografian. Bertako ikerlari gehienek lurralde konkretu bati buruzko ikerketak egiten dituzte, Lapurdi osoari buruzkoak edo bestela portu konkretuei buruzkoak —Baiona, Donibane Lohizune, Bilbo...—. Esan behar da ikerketa gehienak itsas jarduera konkretu bati buruzkoak direla, hala Jaupart edo Pontet-ek Baionako itsas merkataritza ikertzen dute, Priotti-k Bilbokoa, Tourgeon-ek Lapurdiko itsasoz handiko arrantza, Robin-ek eta Jaupart-ek Ziburu eta Donibane Lohizuneko arrantza, bai itsasoz handikoa baita bazterrekoa ere, eta abar. Ez dira ordea jarduera konkretu bati buruzko ikerketa soilak, historian zehar gainontzeko itsas jarduerekin eta lehorrekoekin izandako harreman estuak ere lantzen dituzte —hor nabari da *Annales* eskolaren eragin zuzena— eta benetako Lapurdi osoko itsas ekonomiaren historia bat garatzea lortzen dute. Izan ere Aro Berrian zehar, batetik Lapurdiko kai bakoitzean izandako itsas jardueren

bilakaera eta gorabeherak, bestetik kai eta jardueren —itsasoko zein lehorreko— elkarren arteko mendekotasunak eta harremanak, eta azkenik Lapurdiz kanpoko, batez ere, Frantziako beste itsasertzeko herrialdeekin izandako harreman estuak ikertu baitituzte.

Akats edo betebehar bat aipatzekotan Euskal Herriko ipar eta hegoaldearen arteko mugak sortua dela esan daiteke. Hau da, mugaz beste aldeko gainontzeko euskal lurraldeekin eta batez ere bertako itsas jardueretan zebiltzanekin historian zehar izandako harreman eta lotura estuak ez dituzte sakonkiro aztertzen. Frantses ikuspuntu edo testuinguruko ikerketak dira gehienak, eta honekin zera esan nahi da portu desberdinen historiak ikertzen dituen *Annales* eskolako joeraren akatsak ere heredatu egin dituela Ipar Euskal Herriko historiografiak. Joera honen akatsen artean aipagarriena da, askotan portu bakoitza ekonomikoki, sozialki, kulturalki eta abar, mundu txiki eta independente bat balitz bezala ikertu izana da, inguruko gainontzeko portu eta lurraldeekin izan zituzten ezinbesteko harremanak eta loturak gutxietsiz. Honela, askotan mugaz beste aldekoekin izandako harremanez aritzean Ipar Euskal Herrian orokorkerian erortzeko joera dute, gehiago zehaztu gabe “Espainia” eta “espainiarrekin” izandakoak zirela esanez. Kritika hau ez du Euskal Herri osorako historia “nazional” bat egin nahiak sortu, ez eta ikuspuntu “nazional” horrek piztu. Badirudi Ipar Euskal Herriko itsas ekonomiari buruzko historiografia ez dela konturatzen “Espainia” orokor eta zehaztugabe horrekin Lapurdiko itsas ekonomia historian zehar izan zituen harremanak ez lirakeela gauzatuko edo posible izango bertako zati batzuetan —hau da Hego Euskal Herria osatzen dutenetan— egitura ekonomiko eta politiko berezi bat garatu ez balitz. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian “atzerri-tarrekin”, hau da, lapurtar, baxenafar eta iparraldeko gainontzeko lurraldeetako biztanleekin, izandako giza, ekonomia, merkataritza, finantza eta gainerako harreman eta loturak ez lirakele posible izango bertako Foru-egiturak osatzen zituzten legedi eta autogobernu erakunde bereziek baimendu eta bideratu izan ez balituzte; edo oso bestelakoak izango ziren behintzat.

Eta noski, alderantziz gauza bera gertatzen da. Noski, ez da inolaz ere onargarria Euskal Herriko historia “nazional” bat sortzearen gertakari historiko desberdinen zentzua behartzea, komeni direnak ezkutatu eta besteak aldarrikatu; baina horretan, hau da gertakari batzuk goratzen eta besteak ezkututzen, hasi aurretik, lan izugarria dugu historialariok zein harreman, nolakoak, zenbateraino-koak eta abar, artxiboetan aurkitzen eta finkatzen; eta ez iparraldeko eta hegoaldeko lurraldeen artekoak bakarrik, baizik eta baita mugaren alde bakoitzeko lurraldeen elkarren artekoak ere. Lantegi hau egin beharrekoa da euskal lurralde bakoitzeko edozein gairi buruzko historiaren ikerketek aurrera egiten jarraituko badute. Gaur egungo egitura politikoetan oinarritutako ikerlanek interpretazio-akats larriak dituzte: zer fidagarritasun dute, historian zehar gainontzeko euskal lurraldeekin izandako harreman eta lotura berezi eta estuak ia kontuan izan gabe idazten diren Euskal Autonomia Erkidegoko hiru herrialdeetako edo Nafarroako Foru Komunitateko edo Frantziako Pays Basque-ko historia-ikerlanek dakartzaten interpretazioek?

Eta alderantzizko ikuspuntu honetan sartu garenez, goazen Euskal Herriko itsas ekonomiari buruzko historiografia egituratu duen bigarren joeraz jardutera, hau da, XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera Espainiar estatuan



garatutako berrikuntza historiografikoaren ondorioz gauzatutakoaz hitz batzuek esatera. 1936tik aurrera, aipatutako bi hamarkada horiek bitartean, mende hasierako Positibismoaren kutsuko ikerlan bakan batzuk besterik ez ziren sortu, aipatzekoak direlarik, besteak beste, Imaz edo Ciriquiain-Gaiztarroren lanak. Berrikuntza honen muina Mendebaldeko Europako nazioetan hedatua zegoen estrukturalismo edo egituren azterketan oinarritutako historiografiaren funtsen eta metodologiaren jasokundea izan zen, Braudel, Lapeyre, Chaunu eta antzeko beste historialari atzeritarrek Espainiako historiak egindako ikerketen jarraian. Hau da, historiografiaren joera hau, jadanik gainontzeko Europako herrialdeetan gainbehera hasi eta joera eta bide berriak jorratzen hasten ari ziren garaian, iritsi eta nagusitu zen Espainiako historiografian. Berandutze honek, geroxeago ikusiko dugunez, eragin zuzena izan du Hego Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiografiaren garapen desegokian.

Agian berandutze hau liteke estatu-mallako itsas ekonomiaren historiari buruzko ikerketak oraindik behar bezala garatu ez izanaren arrazoia. Azken urteetan estatu osoko itsas gaiei buruzko historiografiaren ezaugarri nagusienetako bat da, batez ere, oso gai konkrituak landu direla, Espainiar estatu osoko itsas ekonomiaren sintesi orokor bat lortzetik oraindik oso urrun daudelarik. Gainera aurrerapenik nabarmenenak herrialde konkritu batzuetako itsas ekonomiaren ezagutzan izan dira, beste batzuetan gertatutakoak ia ilunpean jarraitzen duelarik. Espainiar historiografiako gai kuttun horietako bat, agian nagusia, Ameriketako espainiar koloniek izandako merkataritzarena da. Gai zabal honen barne aipatzekoa da, batez ere, *Carrera de Indias* delakoa edo Ameriketako lurraldeetara zuzendutako merkataritza-harremenen gainean ezarritako monopolioak sortutako merkataritza-sistemari buruzko ikerlanak. Joera estrukturalistaren eraginez metodologia desberdinak erabili dira Indiek izandako merkataritza hau eta bere ondorio eta eraginak ikertzerakoan. Batetik, esanguratsuak dira merkataritza-trafiko honen kuantifikazioa egiten saiatu direnen lanak, besteak beste García Baquero, García Fuentes, Martínez Shaw eta abarrek eginak, historia ekonomikoan indarrean zegoen metodologia kuantitatiboa erabiliz. Beste batzuen lanak kolonietako merkataritza honek lurralde desberdinetan izandako eragin ekonomiko eta sozialak ikertu dituzte, adibidez, Martínez Shaw, Vilar, Fontana, Delgado, Oliva Melgar, eta abarrek, Katalunian izandakoa ikertu dute, eta García Baquero, Bernal, Tinoco, eta abarrek, Andaluzian izandakoa. Indietarako Itsasbidearen edo *Carrera de Indias*<sup>7</sup> delakoaren inguruan beste itsas jarduera batzuen historia ere ikertu da, adibide bezala aipatzekoak direlarik Armada edo guda-ontziteriari eta ontzi erakuntzari buruzko ikerketak eta denen artean adibiderik esanguratsuen Serrano Mangas-en ikerlanak dira dudarik gabe.

Joera historiografiko horri lotua eta Frantziako *Annales*en giroan sortutako portuei buruzko ikerketen eraginpean, 70eko eta 80ko hamarkadetan portu konkrituen itsas historia ikertzen duten ikerlan ugari sortu ziren, joera estrukturalistaren ezaugarrien arabera, itsas historia hori osatzen zuten egitura desberdinak —ekonomia, gizartea, politika, eta abar— landuz. Dena dela nahiko lan mugatuak dira gehienetan, izan ere, XVIII. mendearen bigarren zatian Indietarako

---

7. Gaztelaniazko *Carrera de Indias* esamoldea Indietarako Itsasbidea bezala itzul daiteke; izan ere, kasu honetan erabiltzen den gaztelaniazko *Carrera* hitzaren esanahia ohiko itsas linea edo bidea baita.

merkataritza-monopolioa hautsi ondoren koloniek merkataritza-harremanak izatera baimendutako portuetan berrikuntza honek erakarrirako aldaketak ikertzen baitituzte batik bat. Eredu bezala aipatzekoak dira Gijoni buruzko Peribáñez-en ikerlana, Santanderri buruzko Martínez Vara-rena, Coruña-ri buruzko Alonso Álvarez-ena, Malagari buruzko Gámez-ena, eta abar. Aldi berean, itsas jarduera konkretuei buruzko ikerketak ere ugaritu dira, ontzigitzari buruzkoak (Rahn Phillips, Casado Soto, Serrano Mangas, eta abar), kortsoari<sup>8</sup> buruzkoak (Otero Lana, López Nadal, Failde, Fonseca, eta abar), kontrabandoari buruzkoak (Arauz, Betancur, eta abar), bazterreko arrantzari buruzkoak (Astigarraga, Casado Soto, Fernández Díaz, Gracia Cárcamo, Pérez Colosa, Sarría Muñoz, Urteaga González, eta abar)... Agian bazterreko arrantza izan da jarduera aztertuen, dena dela, ikerketarik esanguratsuenak XVIII. mendean jarduera honek Katalunian eta Galizian izandako berrikuntza sakonak ikertzen dituztenak dira, lehen herrialdeari buruzko ikerketen artean Martínez Shaw, Madurell Marimon, Reder Gadow, Viruela Martínez, eta abarren lanak aipatzekoak direlarik, eta bigarren herrialdeari buruzkoen artean Bravo Cores, Meijide Pardo, Quintanilla Garrido, Romaní García, eta abarrenak.

Azken urteetan Europan zehar historiografia estrukturalistaren krisiaren ondoren sortutako joera berrien eragina iritsi da Espainiako itsas ekonomiaren historiari buruzko ikerketara. Ondorioz, penintsulako lurralde eta kai konkretuetan garatutako itsas jardueretan interes eta ezaugarri kontrajarrietako giza talde desberdinen partaidetza, elkarren artean sortutako gatazkak eta izandako harremanak ikertzen dituzten lanak (aipatzekoak dira Santanderrerako Echeverría Alonso eta Casado Soto-renak, Malagarako Cabrera Pablos-ena, Laredorako Rodríguez Fernández-ena, eta abar). Beste ikerlari batzuek giza talde konketuak aztertzen dituzte, hala nola azpimarragarriak dira merkatariei buruzko ikerlanak (Rahn Phillips, Thompson, Rubio Pérez, Bustos Rodríguez, Escobedo Mansilla, eta abar) edo ontzigitzako inbertsoreei buruzkoak (Andreu Vidiella, Barkham, eta abar). Laburbilduz, giza taldeen interes eta jokabide sozial eta ekonomiko desberdinak aztertzen dituzten joera berri hauen iristearekin aurrerapen nabarmenak egiten ari diren arren, aldaketak oraindik txikiak eta geldoak direla esan liteke Espainiako ekoizpen historikoan.

Laburki deskribatutako joera historiografiko hauek guztiek eragin zuzena izan dute Hego Euskal Herriko itsas ekonomiari buruzko ikerketa historikoen garapean. Espainian gertatutakoarekin batera 60ko eta 70eko hamarkadetan hasi zen hegoaldeko historiografiaren berrikuntza Europako mendebaldeko herrialde nagusienetan gainbehera hasia zegoen egiturak ikertzen dituen joera historiografikoa nagusituz. Agian, lehen aipatzen zen modura, berandutze honen eraginez joera estrukturalistak ez du denborarik izan hegoaldean itsas ekonomiaren historiaren sintesi bat garatzeko. Gezurra badirudi ere itsas jarduerak garrantzi erabakigarria izan zuten gure “garraio herri” honetan ez dira maila paretsuan garatu itsas ekonomiari buruzko ikerketa historikoak. Ekarpak garrantzitsuenak bi iturburu

---

8. Kortso hitza gaztelaniazko *corsotik* dator. Euskeraz askotan ohi denez, ez da bidezkoa erdal hitz hau itsaslapurketa bezala itzultzea. Izan ere, kortsoak eta itsaslapurketa edo piratakeriak “ekoizpen” metodo berdinak erabiltzen dituzten arren, lehenengoa beti estatu batek baimendutako gizabanakoek zuzendutako etsaien aurkako itsas guda ekintzak dira, bigarrenkoa, aldiz, inongo botere politikoren interes militarren mesedetan egiten ez den lapurketa hutsa delarik.

nagusietatik sortu dira, baina aldi berean bi joera nagusi horien menpean darraio itsas ekonomiaren historiari buruzko ikerkuntzaren zatirik handiena, egoera honek historiografiaren berrikuntzarako arazo larriak dakartzalarik.

Batetik, lehendabiziko ekarpenak Aro Berri osoko Hego Euskal Herriko ekonomiaren bilakaera orokorra aztertzen zuten ikerlanei sor zaizkie. García de Cortázar, Bilbao, Fernández de Pinedo edo Fernández Albaladejo bezalako ikerlariak egin dituzten ekonomiaren bilakaera orokorraren historiaren barne, itsas jarduerak ere ukitu dituzte, beti ere bigarren maila batean, edo beste jarduera batzuen —nekazaritza, merkataritza, burdingintza...— lagungarri modura. Dena den, hasierako ikerlari hauen ekarpenik eraginkorrenak bi izan dira: 1) Metodologiaren arloan historia kuantitatiboaren nagusitza ezarri dute. Joera honek behar-beharrezko dituen dokumentu kuantitatibo eta serieak lehenagoko garaietan nekez aurkitzen direnez joera honetako ikerlanik gehienak XVIII. mendekoak edo Aro Garaikidekoak dira (Zabala, Uriarte Ayo, López Losa, eta abar). 2) Interpretazioaren arloan Hego Euskal Herri itsastar osorako baliagarria dela dioten ekonomiaren bilakaera-eredu orokor bat eraiki dute. Eredu hau, ordea, geroago sakonduko denez, ezin onar liteke Hego Euskal Herri osoko itsas ekonomiaren historiaren sintesi modura, ez baita eratorria izan lurralde historiko bakoitzeko portu bakoitzean gertaturiko bilakaera propioaren ikerkuntza sakon batetik.

Bestetik, ikerlan sakon eta oparoenak jarduera konkretu batzuei buruzkoak izan dira. Ondorioz, jarduera batzuen historiak dezente dakigun bitartean beste batzuek ez dakigu ia ezer. Gainera, ikertzaile asko, jarduera konkretu batzuek, edo jarduera desberdinen artean zeuden harreman eta lotura estu baina ezezagunez dituzten ezjakintasunak eta hutsuneak, lehentxeago aipatutako ekonomiaren bilakaera-eredu orokor hori benetako itsas ekonomiaren historiaren sintesi bat balitz bezala erabiliz, saiatzten dira betetzen. Dena dela itsas jarduera batzuek ikerketa sakon eta oparoak egin dira. Itsas merkataritzari dagokionez benetan esanguratsuak dira euskaldunek Indietako merkataritzan izandako partaidetzari buruzko ikerlanak, horien artean XVIII. mendean sortutako merkataritzako errege-konpainiei buruzko ikerlanak ere aipatzekoak direlarik (Ruiz Rivera, Martínez Shaw, García Fuentes, Garmendia Arruabarrena, Garate, Hussey, Miguel, Díaz Truchuelo, eta abar). Portu konkretuen merkataritza-historiaren ikerketak ere egin dira, hala nola Garateren Donostiari buruzkoak edo Basurto, Zabala, Priotti, eta abarren Bilbori buruzkoak. Itsasoz handiko arrantza izan da landutako beste arlo bat aipatzekoak direlarik Huxley, Barkham edo Azpiazu Elorzaren lanak. Ontzigin-tzari dagokionez ekarpenik garrantzitsuenak Barkham, Odriozola, Rahn Phillips, Aragón Ruano eta abarrek eginak dira. Beste jarduera batzuk ordea oso gutxi landu izan dira. Kortso eta Itsas Armadan izandako partaidetzari buruz, lehen aipatutako Espainia osoa lantzen duten ikerlanez aparte —konparazio baterako Otero Lana-ren ikerketa— positibismo kutsukoak diren Zumalde edo Tellechea Idigorasen lanak besterik ez dira egin. Itsas bazterreko arrantzari buruzko ikerketak orain dela bospasei urte arte etnografia kutsuko lanak izan dira —Apraiz, Bikandi, eta abar— edo kofradiak eta arrantza errege-konpainiak bezalako erakundeen ikerketari lotuta daudenak —Erkoreka, Garate, Astigarraga, eta abar—. Azken urte hauetan arrantzaren ikerketa kuantitatiboaren alorrean saiakera batzuk egin dira, baina erabilitako iturburu dokumentalek lan hauek XVIII. mende amaierara mugatzen dituzte —Gracia Cárcamo, López Losa, eta abar—.

Azpmarratzekoa da, ordea, itsas jarduera konkretuen historiaren ikerlan joera honetan ere ari direla igartzen Europako beste herrialdeetatik datozen berrikuntza historiografikoak. Honela ikerlari mordoxka hasiak dira jarduera desberdinetan parte hartzen zuten giza taldeen egituraketa, harremanak, interesak, gatazkak, hau da, azken batean ekonomiaren motor nagusia osatzen duten faktoreak iker-tzen. Berritzaile hauen artean aipatzekoak dira Basurto, Azpiazu Elorza, Aragón Ruano, Barkham, eta abar.

### **Euskal Herriko itsas eoknomiaren historiaren egoera: gainditu beharreko hutsuneak**

Goian aipatutako azken urteetako euskal historiografiaren askotariko bilakae-raren ondorioz Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoeraren deskri-bapen bat egitean gehien nabarmentzen den gertakaria da desberdintasunez, kontraesanez eta hutsunez josia dagoela. Hasiara batean Ipar eta Hego Euskal Herriko egoeren artean dagoen desberdintasun sakona nabarmentzen da.

Euskal Herriko iparraldeari dagokionez, esan daiteke Lapurdiko itsas ekono-miaren historiaren sintesi bat egituratzera iritsi direla azken urteetako ikerlanen ondorioz. Ikerlan hauek bertako itsas ekonomiaren bilakaera orokorraz gain, portu bakoitzean jarduera desberdinek izandako garrantzia eta bilakaera propioa, portu eta jardueren arteko harreman eta loturak, giza talde desberdinen partaidetza eta harremanak, kanpoko beste portu eta lurraldeekin eta bertako biztanleekin izan-dako harremanak eta abar aztertu dituzte. Honela, jakina da Aro Berrian zehar Lapurdiko kaiak itsas jarduera desberdinetan espezializatu zirela. Erdi Aroaren bu-kaeraz geroztik Baiona zen itsas merkataritzaren gune garrantzitsuena. Aturri ibai nabigagarrian kokatua egoteak merkataritzarako aukera ederrak sortzen zituen Baionan. Donibane Lohizune eta Ziburuko kaia aldiz itsasoz handiko arrantzaren kokagune garrantzitsuena bihurtu zen. Gainontzeko portutxoak itsas bazterreko arrantzara emanak jarraitu zuten. XVI. mendearen erdialdeko hamarkadetan izan-dako Erijiño Guduek erakarritako zailtasunak gainditu ondoren, mende honen amaie-raz geroztik bi portu horietako jarduera nagusi horiek gorakada handia ezagutu zuten.

Itsasoz handiko bakailao eta bale arrantzari dagokionez XVIII. mende erdira arte indar handiz garatu zen ia bi mendeen buruan. Aldian-aldean, batez ere guda garaien ondorioz, sortzen ziren krisialdi edo urte txarren ondoren beti aurrera eta gora egiteko beharrezko guztiak sortzeko gai zen Lapurdiko itsas ekonomia: Lapurdiko marinelez gain eta Donibaneko kai inguruko merkataria eta inbertsoreek zituzten diruez gain, beti lortzen zen behar ziren inbertsioak Baiona, Bordele, Donostia edo Bilbotik erakartzea eta ontzietako tripulazioak Hego Euskal Herriko marinelekin osatzea. Lapurdiko ikerlanetan beti aipatzen da kapital eta marinel “espainiarren” laguntzaren beharra bertako arrantza-ontziteria handia mantenen-tzeko. Dena dela lan horiek ez dute gehiegi sakontzen “espainiar” horien jatorriaz, ez eta laguntza horiek lortzeko behar-beharrezkoak ziren Hego Euskal Herriko lurralde historikoekin izandako harreman ekonomiko, sozial eta politikoen ezau-garriez. Hutsune hau larriagotu egiten da kontuan izaten baldin bada Lapurdiko arrantza-ontziteria boteretsuaren ekoizpenen helburu garrantzitsuena delako “Espainia” hori zela, eta XVII. mendean zehar hain ugariak izan ziren Espainia eta Frantziaren arteko gudaldi luzeetan

Ipar eta Hego Euskal Herriko lurralde desberdinen arteko erlazio eta loturak baimentzen zituen instituzio berezirik —adibidez *Tratados de Conversa*<sup>9</sup> direlakoak— izan ez balitz ez litzatekeela posible izango merkataritza-harreman hauen izatea.

Jakina da ere, batetik Utrecht-eko hitzarmenaren ondoren (1713) Ternuko bakailao-arrantzak pairatzen zituen arazoak areagotzen zihoazela ingelesen erasoan, eta bestetik Ipar Ozeano Atlantikoko bale kopurua gutxiagotzen zihoala, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera itsasoz handiko arrantzaren gainbehera hasi zelarik. Jarduera hau inoiz desagertu ez bazen ere, gainbeherak ekarritako galerei aurre egiteko Donibane Lohizune eta Ziburuko kaian itsasbaterreko arrantzak sekulako gorakada ezagutu zuen. Konkretuki sardina arrantza eta kontserbazioa garatu ziren, Frantzia osoko sardinaren arrantzan zebiltzan kaien buruan kokatuz.

Itsas merkataritzari dagokionez, lehen aipatutako Hego eta Ipar Euskal Herriko harreman bereziek —besteak beste Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiaren artean sinatutako *Conversa* hitzarmenak edo bi Nafarroen arteko mugako zerga txikiak— eragin zuten Baionako portuko XVII eta XVIII. mendeen arteko merkataritza-trafikoaren gorakada. Mende horietan zehar, pixkanaka-pixkanaka, hasieran Nafarroako eta Aragoiko artile-ekoizpenaren esportazioen zati handiena erakartzeaz gain Gaztelatik zetorrenaren zati handi bat ere Baionako porturantz desbideratu zen. Bi Nafarroen arteko muga ordaindu beharreko zergen kopuru txikiak gain, aipatzekoa da Baionaren kokaleku estrategikoa merkataritza-trafikoaren erakartze hau ulertzerakoan, izan ere Pirinioetako mugatik zetozen bide garrantzitsuenak Aturri ibaira biltzen baitziren. Gertakari hau izan zen Baionako itsas ekonomiako beste jarduera bat indartzen lagundu zuena: ontzigintza. Aturri ibaia Pirinioetako baso aberatsetatik zetorren egurra ateratzeko bide nagusi bihurtu zen eta Baionako portua, XVII. mendean Arsenalak ezarri zenetik Frantziako Armadarako guda-ontzien eraikuntzan goi-mailako gune bihurtu zen. Bertan eraikitzen ziren ontziez gain gainontzeko errege-armategietan behar zituzten egurren esportazio-gune garrantzitsuenetariko bat izatera iritsi zen Baiona. Ontzigintzaren —bai Armadarako eta bai indarrean zeuden jarduera zibiletarako— gorakada itsas ekonomiaren eta Lapurdiko lehorreko jarduera industrialen —batez ere burdingintza— garapenerako ezinbestekoa izan zen, eta aipatutako Hego eta Ipar Euskal Herriko lurraldeen harreman berezirik gabe ez zen inoiz posible izango.

Hegoaldera begiraturaz gero, berehala atzematen da Ipar Euskal Herrian gartzea lortu den itsas ekonomiaren historiaren sintesi modukorik izatera ez garela inondik ere gerturatu. Historia estrukturalistaren joera Hego Euskal Herrira ekarri zuten ikerlariek duela ia berrogei urte eraikitako euskal Aro Berriko bilakaera ekonomikoaren ereduak oraindik, dirudenez, indarrean dirau. Izan ere historialarien gehiengo batek euskal itsas ekonomiaren sintesi modura erabiltzen baitute aipatu ereduak. Eredu honek ordea akats eta hutsune ugari ditu eta azken urteetan garatutako ikerlanen emaitzak askotan kontrajarriak zaizkio. Batetik, XIX. mende amaieran indarrean zegoen Espainiako historiografia positibistak sortutako

---

9. Espainiaren eta Frantziaren arteko guda garaian, mugaz bi aldeetako euskal lurraldeen artean sinatutako hitzarmenak ziren, elkarren arteko erasoak ekiditeko eta merkataritza- eta ekonomia-harremanak eten ez zituzten.

krisiaren kontzeptua, bere hartan onartu zuen 60ko hamarkadan berrikuntza historiografikoa eragin zuen joera estrukturalistak. Bilakaera ekonomikoaren eredu estrukturalista honen arabera Aro Berrian zehar XVI. mendeko itsas jarduera denen gorakada handiaren ondoren, mende horren amaiera aldera hasi eta XVII. mendearen amaierako hamarkadak bitartean iraupen luzeko krisialdi bat pairatu zuen euskal itsas ekonomiak. Ordutik aurrera berpizkunde bat hasi zuen XVIII. mendeko gorakadari hasiera emanez. Epe edo iraupen luzeko krisiaren kontzeptua bera ez da inola ere onargarria, kritika historikoak eta logika zientifikoak nahiko izan beharko luketelarik hain epe luzeko koiuntura historiko baten izatea baztertzeke. Laburbilduz eredu honek planteatzen duen koiuntura ekonomikoen bilakaera ez da inondik ere onargarria, eta azken urteetan, adibidez ontzigintzari buruzko ikerlanek —Odriozolak edo Serrano Mangas-ek eginak— argi eta garbi erakusten dute eredu honen oinarrietako bat den epe luzeko krisialdiaren balio-gabetasuna. Beraz bada, ontzigintzaren kasuan egin den bezala, gainontzeko itsas jardueri buruzko ikerketa sakonak egin beharrekoak dira hutsune eta kontraesan hau gainditzeko.

Eredu hau aurrez ontzat emateak historialariek erabiltzen duten ikerketarako metodologiaren arloan ere eragin zuzen eta larriak izan ditu. Itsas ekonomiaren historiari dagokionez argitaratutako ikerlan gehienak XVI. eta XVIII. mendeetako gertakari buruzkoak dira. Hau da, ikerketa gehienak ustez ekonomikoki oparoak izan ziren bi mende “argitsu” horietan biltzen dute jarduna, XVII. mende ilun, kritikoa eta konplexua baztertuz. Ez sinistekoa da ikerlarion artean positibismoak ezarritako ustekeria eta ereduak duten indarra. Joera historiografiko honek bi mende jori horiek ikertu zituen gehien bat, tartekoa, Habsburgotarren eredu inperialak porrota jasan zueneko, bigarren maila batera baztertuz. Beraz, XVII. mendeaz ez dakigu ia ezer itsas ekonomiaren zenbait arlori dagokionez. Egoera honen adibide esanguratsuenak itsasoz handiko arrantzari buruz edo burdingintzari buruz egindako ikerketak dira. Harrigarria bada ere gaur egun oraindik ez da jarduera horiek XVII. mendean sakon ikertuko dituen ikerlan monografiko zabalik idatzi hegoaldean. Pixkanaka azaltzen ari diren zenbait ikerlantxok eta artikuluk zalantzan jartzen badute ere, oraindik indarrean darraien interpretazioak dio XVI. mende amaieraz geroztik kanpotarren kompetentzia latza dela eta bi jarduera hauek krisi gogorra pairatu zutela XVII. mende osoan zehar. Interpretazio honen arinkeriaren lekuko gisa, aipa daiteke, adibidez, ez duela inolaz ere azaltzen nola biziraun izan ahal zuten biek egoera kritikoa horretan mende oso batean zehar.

Bestetik, eredu hau Gipuzkoa eta Bizkaiko portu guztietarako erabiltzen da, beren arteko desberdintasun sakonak inolaz ere kontuan izan gabe. Joera honetako historialariek egindako ikerketa gehienak Bilbo eta Donostiari buruzkoak dira, eta haien atzetik Debari buruzkoak. Hau da, artile merkataritzan aritu ziren hiru portu nagusietakoak. Artilearen trafikoaren bilakaera itsas ekonomia osoak izandakoa-ekin parekatzetik sortzen da joera honen bigarren hutsunea. Egindako ikerlanek garbi erakusten dute XVII. mendeko 30eko hamarkada bitartean Donostia izan zela Hego Euskal Herriko portuetako artile esportatzaile nagusia. Harrezkero, Donostian eta Deban artile trafikoa behearantz zihola Bilbok erakarri zuen artile trafikoen zatirik esanguratsuenak. Eta artilearen trafikoarekin batera Espainia eta atzerriko herrialdeen arteko merkataritza-harremanaren zatirik handiena Bilbon bildu zen. Bitartean gainontzeko kaietan gertatzen zenaz ez dakigu ia ezer, ez eta

laburki deskribatutako bilakaera honen ondoren “krisiak” jotako Donostian eta Deban zer gertatzen ari zenaz ere. Oraindik okerrago, aldaketa hauek itsas ekonomiak lehenagotik zekarren joerak ondorioztatutako bilakaera bat bezala ulertu beharrean, krisiaren erakusgarri bat dela diote. Hau da, Bilbon garatutako merkataritza-trafikoaren bilketa krisiari aurre egiteko asmatutako baliabide bat izan zela. Beraz Bilboko merkataritza-trafikoak gora egiteak ez du esan nahi krisirik ez zegoenik, alderantziz, interpretazio honen arabera goraldi hori Hego Euskal Herriko gainontzeko kostalde osoan hedatutako krisi ekonomiko sakonaren ispilua zen. XVI. mendeko azken hamarkadetan hasi eta itsas ekonomiaren baitan nabarmentzen diren aldaketak —bertako zama-ontziak kanpokoez ordezkatea, arrantza leku berrietan aurkitutako aurkaritza, ontzigintza Nerbioi eta Oria ibaien arroetan eta Pasaiako portuan biltzea, eta abar— krisiaren ondorio direla diote. Azkenean XVII. mendearen hasierako hamarkadetan krisi hori itsas jarduera guztietara zabaldu omen zen.

Interpretazio honek ordea hutsune asko eta azkeneko ekarpenekin kontraesan larriak ditu. Lehentxeago aipatu da ontzigintzaren inguruan egindako azken ikerlanen ondorioak ez datozela bat bilakaera-eredu honekin. Berdin gertatzen da Gipuzkoako bazterreko arrantzari buruz azken aldi honetan egin diren ekarpenekin ere —besteak beste aipagarriak dira Azpiazuren lanak—. Laburbilduz, XVII. mendean Hego Euskal Herriko portu gehienetan eta itsas jarduera desberdinek izandako bilakaera ekonomikoaz ez dakigu ia ezer, eta hutsune hori bete beharra dago aurrera egingo badu historiaren jakintzak. Derrigorrez bete beharreko hutsuneak dira, besteak beste, XVIII. mendeko goraldiaren sorburuak zein izan ziren jakin nahi badugu. Eta XVIII. mendeko goraldiaren kontzeptuaz ari garela berehala konturatuko gara hau ere, krisiaren kasuan bezala, orokorkeria bat besterik ez dela, goraldia portu eta jarduera jakin batzuek ezagutu zutela, baina beste batzuek, adibidez Gipuzkoako bazterreko arrantzak, krisialdi gogorra pairatu zuela mende erdialdera arte. Esaten ari garen honek denak garbi adierazten du Ipar Euskal Herriko ikerketa historikoak egin duena lortzetik urrun gaudela hegoaldean, ez baititugu oraindik itsas jarduera eta portuen arteko harremanen eta lotura estuen ezaugarriak finkatu. Eta lotura eta harreman horien beste adibide argi bat da XVIII. mendeko amaiera aldera Caracaseko Konpainiak eta beste merkataritza-enpresa batzuek izandako krisialdia, Ameriketako merkataritza-monopolioaren hausturak eragindako aldaketa sakonen ondorioz, bazterreko arrantza bezalako beste jarduera batzuen gorakadarekin batera gertatu zela.

Laburpen gisara esan daiteke Euskal Herri osoko itsas ekonomiaren historiaren gaur egungo egoerak bete beharreko hutsune eta akats ugari dituela. Nahiz eta Euskal Herriko Ipar eta Hegoaldean egin denaren arteko desberdintasunak handiak diren, nabari da bietan ezinbesteko zenbait aurrerapauso emateke daudela oraindik.

- Batetik, euskal lurraldeen “mugatasunak” dakartzan ondorioak ikertzeko daude bi aldeetan. Edonola ere itsas jardueren funtzionamenduan hain eragin zuzena izan zuten mugaz gaindiko harreman estuak aztertu beharrekoak dira gure jakintza-mailak aurrera egingo badu.

- Bestetik, eta paradoxa bat badirudi ere, aldi berean lekuan lekuko ekonomiaren bilakaeran funtsezkoak diren desberdintasunak eta espezializazioak ezin dira baztertu ekonomiaren bilakaera eredu orokor bat erabiliz. Ezingo da inolaz ere itsas ekonomiaren bilakaera historikoaren sintesi bat eraiki desberdintasun hauek kontuan izan gabe; izan ere, askotan edo gehienetan herri edo kaien arteko desberdintasunak osagarriak baitira. Hau da, tokian tokiko itsas ekonomiaren bilakaeraren kausa eta efektu nagusietako bat desberdintasun eta espezializazio ekonomiko horietan aurkitu behar da. Hori loturik, itsas jarduera bakoitzak tokian-tokian izandako bilakaera propioa ikertu behar da, behin eta berriz orokorkeriatik aldenduz, aldi berean jarduera guztien arteko harreman eta loturak aztertuz.
- Azkenik, itsas ekonomiaren historiaren sintesi batera gerturatzearen dokumentazio iturri eta ikerketarako metodologia bereziak erabiliz ikergai desberdinak aztertu behar dira. Ekonomiaren funtzionamendua eta bilakaera ulertzeko ez da bidezkoa gehienetan oso sakabanatuak eta osagabeak diren datu numerikoetan oinarritutako adierazle ekonomiko batzuen azterketa murriztea. Itsas ekonomiaren protagonistak zirenen interesak, elkarren arteko harremanak, loturak eta gatazkak, eta antzekoak ikertzetik hasi behar da, izan ere adierazle numerikoak osagarri gisara erabili beharreko datuak besterik ez baitira, eta gainera datu berak kontrakoak izatera ere irits daitezkeen interpretazio historiko desberdinen lagungarri dira.

### **Jorratu beharreko bideak**

Hasierakoari helduz, egia da, ikusi denez, aurrerapausoak egin direla, egia da joandako 30 edo 40 urte hauetan lehenago ez genekizkien gertakari asko eta asko jakitera iritsi garela, baina egiazkoa da ere, sarreran aipatutako itsas gaien historiografiari buruzko lanek sorrarazten duten sentsazioa, alegia, itsas ekonomiari buruzko historiografia geraldiko moduko batean murgildua dagoela. Izan ere, aipaturiko lan horietan, Zabalak sentitzen zituen betebeharrak berdinak hogeita hamar urte beranduago oraindik egiteke aurkitzen baititu Agirreazkuenagak. Beraz, arlo, gai eta jarduera jakin batzuen ezagutzan aurrerapausoak nabarmenak eta funtsezkoak izan arren etorkizunean itsas ekonomia bere osotasunean edo bere baitako edozein gai zehatz ikertzeko behar-beharrezkoa gertatzen den Euskal Herri osorako baliagarri izan litekeen itsas historiaren sintesi orokorki onartu bat egitetik urrun gaude oraindik. Askoz okerrago, helburu horretara iristeko ordea itsas ekonomiari buruzko historiografiak gainditu beharreko oztopo larriak ditu bere baitan. Oztopo hauek gainditzeko ez badira geraldikoak iraun egingo du. Izan ere, gaur egun dagoen egoeran eta aldaketa sakonik gertatzen ez bada euskal historiografia nekez izan baitaiteke gai Aro Berriko itsas historiaren ezagutzak aurrera egin dezan ezinbesteko diren ikerlan sakonak burutzeko. Ondoren zehaztuko diren oztopoak ez dira batere gainditzeko errazak, izan ere, nahiz eta era askotakoak izan, elkarren artean uztarturik agertzen baitira.

Lehenbizikoz, Historiaren zientziasunaz aritu beharra dugu. Azken garaietan nahiko modan dagoen gaia da hau, alegia, Historia diziplina zientifikotzat har ote daitekeen pentsatzea. Marxista eta *Annales* eskolek uztarturiko joera estrukturalistaren krisiaren ondoren sortutako eztabaida dugu hau, izan ere, zenbaitek krisi



hori Historia benetako diziplina zientifiko ez izateari egotzi baitzioten. Eztabaida hau pizteaz batera historialari handi asko aritu dira Historiaren zientziatasuna defendatzen eta gehienek hau nabarmentzen dute: Historiaren zientziatasunaren inguruko zalantzak historialariok pairatu izan dugun teoria eta metodo zientifikoaren ezagutza murriztetik eratorriak direla. Ez gara, noski, filosofia kontuetan murgilduko, alegia, Historia zientzia ote den ala ez eztabaidatzera, baina ezin ukatukoak dira historialarion mugak teoria eta metodologia zientifikoari dagokionez. Itsas ekonomiaren historiografiari dagokionez, 60ko eta 70eko hamarkadetan nagusitutako joera estrukturalista berehala uztartu zen metodologia kuantitatiboarekin ikerlanak burutzeko. Estrukturalismoaren krisiak ondorio larriak sortu ditu: Ekonomiaren historialari asko eta asko “kuantitatibismoan” erori direla esan daiteke. Hau da, Historiaren zientziatasunak sortzen dituen zalantzak gainditzeko bidetzat hartu dute metodo kuantitatiboa, pentsatuaz zientziarik zehatzenaren ezaugarrietako bat zenbaketa, edo datu zehatz, begi-bistako, ukigarri eta ukaezinak zenbatzea denez, historialariok berdina eginez gero, hau da, datu kuantitatibo eta adierazleen bilketa eginaz, zalantza horiek saihestea lortuko dutela. Ondorioz, “kuantitatibismoan” edo zenbaketa hutsaren murrizketan dirau ikerlari askok eta askok. Geroxeago arituko gara interpretazio berrien arazoaz baina orain gauza bat argi eta garbi aldarrikatu beharrekoa da, alegia, dokumentazioan aurki daitezkeen datu ukaezinak ez direla besterik gabe iraganeko benetako errealitateak edo “egia” berreraikitzeak; gehienez ere guk eraikitzen ditugun interpretazio-ereduak balioztatzeak bakarrik balio dezaketela, eta hori berdin gertatzen da bai Historian eta baita gainontzeko zientzia guztietan zehatzenzat kontsidera ditzakegunetan ere.

Beste zientzia zehatz horietako ikerlanetara gerturatuz berehala ikusten da ez dutela ukaezinezko errealitate absolutu baten ezagutza helburutzat. Teoria zientifiko guztiek behar duten ezaugarriak garrantzitsuena errealitatearekin erlazionatzeko gaitasuna da, munduko gertakariak ahal den ondoen deskribatzeko. Beraz, inongo zientziarentzat ez da onargarria, ez eta Historiaren kasuan ere, metodologia konkretu baten erabilerak ekar dezakeen ziurtasunaz baliatuz interpretazio-modelo edo eredu bati oso-osorik atxikia mantentzea. Historialariak asko ikasi beharrean gaude beste zientzien erabileratik, besteak beste, Historiarekin oso lotura estua izan dezaketen Astrofisika bezalako zientzia zehatzek egiten dutenarekin. Zientzia honen eite garrantzitsuetako bat unibertsoaren historiaren ikerkuntza delarik, horretarako ukaezinak diren datu fisiko eta kimikoez baliatuz, harriztekoa da astrofisikariak nolako erraztasun eta naturaltasunaz aritzen diren interpretazio-modelo edo eredu berri eta desberdinak sortzen, erabiltzen, konbinatzen edo bazterrean uzten<sup>10</sup>.

---

10. “Big bang” edo gaur egun ezagun dugun unibertsoari hasiera eman omen zion leherketaren ondoren milioika urtean joanean sortzen joan diren egitura eta astro desberdinen sorrera espikatzen duten modelo edo eredu desberdinen artean gaur egun indar gehien hartzen ari denak dio unibertsoa osatzen duen materiaren zatirik handiena neurtezina, zenbaezina eta ikusezina dela, “materia iluna” delakoa. Begira Iñaki Olaizolak galaxien sorrerari buruz dioena: *“El aspecto más fundamental de toda teoría científica es su capacidad de relacionarse con la realidad, esto es, de describir satisfactoriamente aquellos fenómenos del mundo que nos rodea que caen en su dominio de aplicabilidad. Dicho de otra manera, la validez -o, al menos, la plausibilidad- de una teoría sólo puede ser corroborada por medio de experimentos, mediciones u observaciones. Sin embargo, esto no siempre es fácil (...) No obstante estas dificultades contamos, hoy por hoy, con hechos observacionales que*

Bigarrenez, itsas ekonomiaren historiaren geldialdia gainditzeko ikerketan erabiltzen den metodologiaren berrikuntza beharrezkoa da. Metodologiek edozein interpretazio-ereduk planteatzen dituen hipotesiak baieztatzeko edo ezeztatzeko balio dute eta inolaz ere ez delako eredu bat kosta ala kosta tinko mantentzeko euskarri moduko bat izan dadin. Izan ere honela jokatzuz gero ikerketarako baliagarri diren datu multzo osotik bakar batzuk, ereduaren sostengarritasuna bermatzeko komeni direnak, bakarrik lantzeko arriskua sortzen baita<sup>11</sup>. Hau da, ez da zuzena ikerketa ekonomikoak egiteko garaian datu kuantitatiboak bakarrik erabiltzen jarraitzea, edo bestelako ikerketetan, gizarte, kultura, ohiturak, eta abar, aztertzen dituztenetan datu kualitatiboak bakarrik erabiltzea. Aro Berriko itsas ekonomiari buruzko edozein ikerketa egiterakoan mota guztietako datuak erabili behar dira. Bestela gertatzen da, gehienetan datu numerikoak dituzten dokumentuak oso berantiarrak direla, onenean XVIII. mende amaiera aldekoak, edo bestela ez direla erabatekoak ez eta fidagarriak ere. Hau da, historialariak bere ikergaiari buruzko edo inguruko ahal duen dokumentu-mota guztiak miatu behar ditu. Zenbat eta informazio kopuru zabalagoa eta zehatzagoa izan gero eta baliagarriagoak izango dira eraikitzen diren interpretazio eta ereduak.

---

*interpretamos como evidencias de que las ideas generales que conocemos son más o menos correctas (...)* Por el momento, los datos observacionales disponibles no bastan para desechar o aceptar ninguna de estas teorías (...) hoy por hoy queda poca duda de que la materia oscura existe, y de que probablemente sea más abundante que la materia visible. Pero no deja de sorprendernos el hecho que, de acuerdo con los cálculos más conservadores, en el universo hay unas 4 veces más materia oscura que materia luminosa...” (I. Olaizola, 1995: 22-30).

11. Direlako “krisialdi” eta “oparoaldi” luze eta orokorrak baieztatzeko erabilitako metodologia falsuez ari garela, horietako zenbait historialarion komunitateak gogor gaitzetsi eta baztertu beharrekoak dira. Adibidez, argitaratu berri den gorago aipatutako, *Historia del País Vasco* izenburupeko Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeen historiari buruzko eskuliburuan Behe Erdi Aroan Gipuzkoan delako beste “krisialdi” luze eta sakon bat izan zela frogatzeko autoreak erabilitako prozedurari begiratu besterik ez dugu. Inolako beste froga dokumental berririk aurkeztu gabe, eta nahiz eta liburu berdineko beste atal batzuetan Bizkaiko eta Gipuzkoako bigarren eta hirugarren arlo ekonomikoek garai horretan izan zuten gorakada nabarmena baieztan duten dokumentu ugari bildu, nola edo hala nekazaritzak pairatutako “krisialdi” luze horren existentzia frogatu nahi da. Erabilitako prozedura, benetan onartezina, izan ere 1347-1450 urteen arteko delako “krisialdia” eta 1450-1500 urteen arteko “suspertzea” frogatzeko dokumentu-zati bakar bera erabiltzen baitu. Hartarako dokumentu horretako zenbait zati komeni zaionaren arabera, batzuetan ezkutatzuz eta besteetan idatziz, eta beti dokumentuaren testuingurua bere nahierara behartuz. Oraindik sinestezinagoak dira dokumentu-zati egokitu hau erabiliz idazlanaren bi ataletan egiten dituen gogoeta kontrajarriak, batean krisialdia eta bestean susperraldia frogatzeko. Krisialdia frogatzeko zera dio: “...E aun solía ver que quando alguna vez los de Legazpia hazían alguna sembradura en los seles donde las vacas solían albergar, que no se lo consentían los de Çegama e Çerain, e les talaban e destruían los panes... porque non tomasen posesión de los dichos términos e montes comunes, e ansi solía ver que non les consentían hazer sembradías nin rromper en los seles porque los dexasen libres para los sus ganados, para los abrigar..., y puede aver veynte e çinco o veinte y seys años que solía ver que rompían y labraban en los dichos términos, y que hazían sembradías de pan çiertos veçinos de Çerain..., e vido que sembraban trigo en las tierras que ansy labraban..., vio a Pedro de Manchola, ya difunto, y a Juan de Olabide, veçino de Çerain, andar por los dichos términos e montes labrando y sembrando tierras de pan llevar e segando...”, on-don gogoeta hau erantsiz: “...Los elevados rendimientos por simiente, que alcanzan el 1 a 15, y la brevedad del periodo de explotación de las parcelas, tres o cuatro años, nos indican con claridad que nos hallamos con un sistema de rozas. Estas referencias a roturaciones no serían así manifestaciones de una recuperación temprana, sino de la continuidad de la crisis agraria a lo largo del final del siglo XIV y la primera mitad del siglo XV...”. Eta susperraldia frogatzeko dio: “...y puede aver veynte e çinco o veinte y seys años..., y que hazían sembradías de pan çiertos veçinos de Çerain..., e vido que sembraban trigo en las tierras que ansy labraban e aun se acuerda que cada fanega que sembraban

*Annaleseko* eskolaren ametsak, hau da, “Historia osoa” egitearenak, eragin zuzena izan beharko luke ikerketan erabili beharreko metodologian. Helezina den osotasunera ahal den gehiena gerturatzea komeni da edozein gai ikertzeko iturriak aukeratzekoan. Hau da, ez da komeni ekonomiaren historia dokumentazio “ekonomikoak” bakarrik erabiliz egitea. Erabili beharreko iturri dokumentalak ahal den gehien zabaldu behar dira, horixe baita ekonomiaren motor garrantzitsuenetakoak diren interesak, gatazkak, harremanak eta antzekoak ezagutzeko era bakarra, eta berdin lekuan lekuko eta jarduera konkretu bakoitzeko bilakaera propioez jabetzeko ere. Gezurra badirudi ere, itsas bazterreko herrietako udal-agiritegi asko eta asko ia ukitu gabeak daude eta dokumentuen tipologiari dagokionez berdina gertatzen da, adibidez, izugarri aberatsak diren agiri judizialekin eta beste agiri-mota askorekin. Hauxe da, ahalik eta dokumentu-tipo gehienak aztertzea, euskal itsas ekonomiaren historiak dituen akatsetako asko gainditzeko era bakarra: kai desberdinen espezializazioa, jarduera bakoitzaren berezko bilakaera, lurralde, kai eta jarduera desberdinen, denen, arteko harremanak eta loturak, ia ezer ez dakigun garaietako —adibidez XVII. mendea— ezagutzaren zabalitzea, eta abar. Noski, dokumentazioari buruz esaten ari garen berdina esan daiteke hain aipatuak diren behar-beharrezko diziplina arteko harremanekin ere: zenbat eta harreman gehiago orduan eta ezagutzaren aurrerapen-maila hobea.

Laburbilduz, joera historiografiko estrukturalistak, “kuantitatibismoaz” baliatuz, hala nola eraikitako itsas ekonomiaren bilakaeraren eredia berrikustea beste erremediorik ez zaigu geratzen gai honi buruzko historiaren ikerketak aurrera egiterik nahi baldin badugu. Dokumentazio-iturri berriak kontsultatu beharra dago eta beste diziplina zientifikoek lortutako ekarpenak kontuan eduki beharrekoak dira aipatutako eredu horren balioztapena baieztatzeke, behar izanez gero berrikuntzak egiteko edo bestela beste erremediorik geratzen ez bada baztertu eta eredu berriak eraikitzeke. Bada garaia, ia berrogei urte pasa ondoren, lan honetan has-teko eta “kuantitatibismoa” eta antzeko bide edo joera faltsuak baztertzeko. Izan ere benetako metodologia zientifikoak izan beharrean, bide eta joera faltsu horiek jorratzen dituztenek teoria zientifikoaren ezagutzaz dituzten gabeziak edo teoria horrek exijitzen dituen eredu-aldaketei dieten beldurra estaltzeko besterik ez baitute balio aipaturiko bide eta joerok.

Hirugarrenez, kosta ala kosta eredu zaharrak mantentzeak, horretarako hartaratutako metodologia faltsuez baliatuz, badu euskal historiografiarako oso arriskutsua eta kaltegarria gertatzen ari den beste aurpegi bat, “akademizismo” bezala izenda dezakeguna. Harrigarria badirudi ere Hego Euskal Herrian azken urteetan itsas ekonomiaren historiaren inguruan ematen ari diren berrikuntza eta

---

cogían quinze fanegas..., vio a Pedro de Manchola, ya difunto, y a Juan de Olabide, veçino de Çerain, andar por los dichos términos e montes labrando y sembrando tierras de pan llevar e segando...a los quoaales vio con los de sus casas andar trabajando en las dichas heredades como dicho es por espacio y tiempo de tres o cuatro años”, beste gogoeta honetaz biribildua: “...Los datos de la zona holohúmeda nos ofrecen una imagen parecida a la de la zona central, esto es, un incremento del área cultivada a costa de los prados, del monte y del bosque e incluso de caminos, como se señala en Durango en 1490. También a partir de la roturación de tierras comunales, como sucede en las proximidades de Segura y Legazpia, donde aquélla se realizaba con la resistencia de los ganaderos, que derribaban los setos y destruían las cosechas...” (J.A. Fernandez de Larrea, 2004: 377-403). Hau ez da zientzia egitea, metodologia arrazionalak eta zientifikoak erabiliz; hau, zintzotasun zientifikoaren gainetik eredu bat erabiltzea da hartarako beharrezko diren neurri guztiak hartuz.

aurrerapauso garrantzitsuenak, bertako unibertsitateetan zuzenean atxiki gabeko ikerlariak eginak dira zati handi batean. Kasu batzuetan, benetako akademizismo bat igartzen da itsas ekonomiaren historiaren ikerketaren inguruan, izan ere eredu zaharraren aldaketa galaraztearen alde unibertsitateetako departamentuek ematen dizkieten indarra, eragina eta izen ona erabiltzera ere iristen baitira historialari batzuk. Historialari horiek duten boterearen beldur eta beren aurkaritza nolabait saihestearren, joera kuantitatibotik at itsas ekonomiako gairen batzuk ikertu nahi izan dituzten ikerlari zenbaitek diziplina artekotasun faltsu batera jotzen dute. Egoera hau oso nabarmena da, adibidez, bazterreko arrantzaren ikerketa historikoei dago-kienez. Barandiaran edo Caro Baroja bezalako ikerlari handiek euskal etnografia eta antropologiari emandako bultzadaz baliatuz, ikerlari askok XVIII. mendearen amaiera baino lehenagoko, hau da, lehenengo iturri kuantitatibo fidagarriak hasi aurreko, jarduera honi buruzko ikerlanak ikuspuntu etnografiko-antropologiko bate-rik egin dituzte, hau da, hain ugariak diren iturri dokumental “kualitatiboak” ia ba-tere erabili gabe. Hau ez da diziplina arteko harremana, hau Historiaren lana, Etnografiak edo Antropologiak betetzea da, beti ere ezarritako eredu akademizis-tarekin gatazkarik ez pizteko.

Laugarrenez, eta amaitzeko, itsas ekonomia Aro Berrian zehar izandako bilakaerari buruzko interpretazio eta eredu berriak eraiki beharrean dago. Idazlan honetan behin eta berriz aldarrikatu denez eraiki beharreko eredu berriak itsas ekonomiaren baitan zeuden egoera desberdin ugarien batasunetik sortuak behar dute. Herrialde, portu eta jarduera bakoitzaren ezaugarri eta bilakaera propioak eta elkarren arteko harremanak eta loturak deskribatu eta azaldu beharko dituzte eredu berriok. Hau da, iturri askotarikoen informazio ugari ez baliatzen den ikerke-ta-metodologia batek eredu ekonomiko askotarikoak sorrarazi behar ditu, egoera, gertakari, arazo, gatazka, interes, askotan kontrajarriak, elkartzea edo uztartzea lortzen duten ereduak. Atzerriko historiografietan azken urteetan badira antzeko ideiak planteatzen dituzten lanak inspirazio modukoak izan daitezkeenak, adibi-dez, duela oso urte gutxi Ipar Amerikan “aurpegi aniztun historia” edo “multifaceted history” delakoa sustraitu da. Joera honek gertakari historiko konkretuak, ahal den era gehienetako iturri dokumentalak erabiliz, protagonista desberdinen ikuspuntu eta interesak, eta horien inguruko elkarren arteko gatazkek eta harremanak aztertzen saiatzen da<sup>12</sup>.

Aniztasunaz ari garela, eta paradoxikoa dela badirudi ere, itsas ekonomiaren interpretazioan aurrera egiteko garrantzitsua da Euskal Herri osoko gertakari eta ezaugarri bereziak bateratu edo uztartuko dituen ereduak eraikitzea. Ereduok ez dute orokorkeria erortzeko erabiltzeko izan behar, hau da, lurralde bateko his-toriaren bilakaerara nahiko ongi moldatzen den eredu bat gainontzeko lurraldeetan berdin erabiltzeko edo ezartzeko. Alderantziz, tokian tokiko ezaugarri eta bilakaera bereziak kontuan izanik desberdintasun horien arteko harreman eta loturak aurki-tzen lagun dezaketen ereduak behar dute izan. Hau da, tokian tokiko ezaugarri eta bilakaera bereziko herri-mailako ekonomiaren, itsas bazterreko eta lehorreko es-kualdeetako ekonomiaren, probintzia edo lurralde historikoetako ekonomiaren, Euskal Herri osoko ekonomiaren eta nazioarteko ekonomiaren arteko harremanak eta loturak askotan uste izaten dena baino estuagoak dira. Eta Aro Berrian zehar

---

12. Ikusi adibidez: R. Raphael, 2001.

askotan etsai izan ziren Europako bi erregetza garrantzitsuenetakoen, Frantzia eta Espainia, agindupeko ziren euskal lurraldeen arteko harremanak ikertzea behar-beharrezkoa da, ez herri-mailako itsas ekonomiaren historia ikertzeko soilik, baita, adibidez, bi erregetzetako itsas jarduera garrantzitsuenek elkarren artean izandako harremanen historia aztertzeko ere. Hau da, lehenago aipatzen zenez, Euskal Herriaren “mugatasuna” kontuan izan beharra dago itsas jarduerak izandako bilakaera ikertzerakoan, mugak, gehienetan, ate itxiak beharrez, bi aldetako biztanleen harremanak gauzatzen diren lekua izaten baitira. Nahi baldin bada eredu hauei “nazional” izena jar diezaikegu, baina horrek ez du aitzakia izan behar bestelako mugak sortzeko Euskal Herriko lurraldeen eta kanpokoen artean. Izan ere kanpokoekin izandako harremanen garrantzia euskal lurraldeek beren artean izandakoen parekoa baita.

Idazlan honetan behin eta berriz salatu da leku, hiri edo portu jakin bateko itsas historiaren sintesia euskal kostalde osorako erabiltzeko joera duela gure historiografiak, hau da orokorkeria erortzeko joera. Erabili beharreko ereduak, ordea, ez dira orokorkeriatik jaioko izan behar aniztasunetik baizik. Euskal itsas historiaren eredu berriek, beraz, prozesu historiko makroespazialak eta mikroespazialak aintzat izan behar dituzte beti. Eraikitzen ditugun ereduak herrialde edo probintzia oso baterako, eta berdin Euskal Herri osorako, baliagarriak izan daitezten, ikergai dugun lurralde osoan gertatzen diren prozesu makroespazialez gain, tokian tokiko prozesu mikroespazialak bereizi eta aztertu behar ditu, bi prozesu-multzoen arteko harremanak eta loturak deskribatuz. Hau ezinbestekoa da, izan ere Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiari buruzko edozein gai ikertzen hasiz gero berehala konturatuko gara bi prozesu horien arteko harremanek “mugatasunaren” antzeko beste konstante historiko moduko bat osatzen dutela. Gertakari edo prozesu makroespazial asko eta asko, hau da lurralde zabal bateko historiaren atal garrantzitsuak direnak, herri edo lurralde zehatz eta txiki bateko biztanleentzat beste gertakari edo prozesu mikroespazial bat besterik ez ziren. Itsas ekonomiako gertakari historikoak aldi berean bi prozesu horien ikuspuntupean aztertzen dituzten ereduak behar ditugu nahi eta nahi ez gure ezagutzak aurrera egingo badu. Adibidez, XVII. mendeko Gipuzkoako kortsoa ikertzerakoan ez da zilegi bakarrik ikuspegi makroespazialeatik Espainiako garrantzitsuena zela esatea, aldi berean ikuspegi mikroespazialeatik jarduera hori gehien bat Donostian eta Hondarribian zegoela uztartua azaldu gabe. Edo XVIII. mendeko lehen hamarkadetakoa itsasoz handiko arrantza aztertzean ez da zuzena esatea, ikuspegi makroespazialeatik bakarrik begiratuz, Gipuzkoako itsas ekonomian garrantzi oso txikia zuela, kontuan izan gabe, mikroespazialki begiratuz gero, kostaldeko herrietako marinelen ia lautik hiruk jarduera horretan egiten zuela lan.

## Bibliografia

1) Itsas ekonomiaren egoerari buruzkoak:

Agirreazkuenaga, J. (2002): “Historian barrena: historiografiaren arazoak”, *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.

Unsain, J. M. (Zuz) (1996): *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 1.

Zabala , A., et al. (1983): *Historia de la Economía Marítima del País Vasco*, Donostia, Txertoa.

2) *Annales* eskolaren inguruko Frantziako ikerlan batzuk:

Bernad, J. (1968): *Navires et gens de mer à Bordeaux (vers 1400 vers 1550)*, Paris, S.E.V.P.E.N.

Braudel, F. (1976): *El Mediterráneo y el mundo mediterráneo en la época de Felipe II*, Madril, F.C.E.

Cabantous, A. (1980): *La Mer et les hommes: pecheurs et marins dunkerquois de Louis XIV à la Revolution*, Dunkerque, Westhoek édition.

Chaunu, P. (1955-1959): *Sevilla et l'Atlantique*, Paris.

Delumeau, J. (1966): *Le mouvement du port de Saint-Malo (1680-1728)*, Paris.

Heers, J. (1955): "La comerce des basques en Mediterranee au XVe siècle: d'apres les Archives de Génè", *Bulletin Hispanique*, 57.

Lapeyre, H. (1981): *El comercio exterior de Castilla a través de las aduanas de Felipe II*, Valladolid, Universidad de Valladolid.

Mollat, M. (1983): *La vie quotidienne des gens de mer en Atlantique (IXe.-XVIe. siècle)*, Paris, Hachette.

3) Ipar Euskal Herriko zenbait ikerlan:

Jaupart, F. (1966-1969): *L'activité commerciale et maritime de Bayonne au XVIIIe siècle*, Baiona.

—————, (1981-1982): *L'histoire maritime de Saint-Jean-de-Luz et Ciboure aux XVIIe-XVIIIe siècles*, Baiona.

Pontet-Fourmigue, J. (1990): *Bayonne, un destin de ville moyenne à l'époque moderne*, Pau, J&D édition.

Priotti, J.P. (1995): "Des financiers de la mer: les marchands de Bilbao du XVIe et du debut du XVIIe siècle", *L'aventure maritime du golfe de Gascogne à Terre-Neuve*, Paris, Éditions du CTHS.

Robin, D. (2002): *L'histoire des pêcheurs basques au XVIIIe siècle*, Donostia, Elkar.

Tourgeon, L. (1982): *Pêches Basques en Atlantique Nord (XVIIe-XVIIIe siècle). Étude d'économie maritime*, Bordele, Université du Bordeaux.

4) Itsas ekonomiaren historiari buruzko (Amerikarekiko merkataritzaren, jarduera eta herrialde desberdinen ingurukoak) zenbait adibide:

Alonso Álvarez, L. (1976): *Industrialización y conflictos sociales en la Galicia del Antiguo Régimen, 1750-1830*, Madrid.

Casado Soto, J. L. (1988): *Los barcos españoles del siglo XVI y la Gran Armada de 1588*, Madrid.

—————, (1977): "Los pescadores de la villa de Santander entre los siglos XVI y XVII", *Anuario Juan de la Cosa*, I.

Fernández Díaz, R. eta Martínez Shaw, C. (1984): "La pesca en la España del siglo XVIII. Una aproximación cuantitativa", *Revista de Historia Económica*, II (3).

García-Baquero, (1976): *Cádiz y el Atlántico (1717-1778)*, Sevilla, Escuela de Estudios Hispanoamericanos.

García Fuentes, L. (1976): *El comercio español con América (1650-1700)*, Sevilla, Escuela de Estudios Hispanoamericanos.

—————, (1991): *Sevilla, los vascos y América (Las exportaciones de hierro y manufacturas metálicas en los siglos XVI, XVII y XVIII)*, Bilbo, Fundación BBV.

- Gracia Carcamo, J. A. (1984): "La evolución de la economía pesquera española en el siglo XVIII", *Letras de Deusto*, **14**.
- Martínez Shaw, C. (1988): "La pesca en la Cataluña del siglo XVIII. Una panorámica", *Pedralbes, Revista d'Historia Moderna*, **8**.
- Meijide Pardo, (1971): *Economía marítima de la Galicia cantábrica en el siglo XVIII*, Valladolid, Universidad de Valladolid.
- , (1984): "La penetración económica catalana en el puerto de Mugaros (1760-1830)", *Pedralbes, Revista d'Historia Moderna*, **4**.
- Oliva Melgar, J. M. (1996): "Realidad y ficción en el monopolio de Indias: una reflexión sobre el sistema imperial español en el siglo XVII", *Manuscrits. Revista d'Historia Moderna*, **14**.
- Otero Lana, E. (1992): *Los corsarios españoles durante la decadencia de los Austrias: el curso español del Atlántico peninsular en el siglo XVII (1621-1697)*, Madrid, Editorial Naval.
- Rahn Phillips, C. (1991): *Seis galeones para el rey de España*, Madrid, Alianza.
- Reder Gadow, M. (1991): "Conflictos pesqueros catalano-malagueños en la costa marbellí a mediados del siglo XVIII", *Baetica. Estudios de Arte, Geografía e Historia*, **13**.
- Serrano Mangas, F. (1985): *Los galeones de la Carrera de Indias*, Sevilla, CSIC.
- Urteaga, L. (1987): *La tierra esquilhada. Las ideas sobre la conservación de la naturaleza en la cultura española del siglo XVIII*, Barcelona-Madrid, Serval-CSIC.
- Urteaga González, L. eta Muro, I. (1993): "Una serie histórica sobre producción pesquera: las almadrabas de la bahía de Cádiz (1525-1763)", *Estudios Geográficos*, **54**.
- Viruela Martínez, R. (1993): "Difusió de la pesca del bou en el litoral valencia (segles XVIII i XIX)", *Cuadernos de Geografía*, **53**.

5) Hego Euskal Herrian duela gutxi arte indarrean egon diren joera historiografikoen baitan egindako zenbait ikerlan: positibismo kutsukoak, egiturak ikertzen dituztenak, kuantitatibistak, etnografikoak eta abar.

- Astigarraga Goenaga, J. (1992): "La Compañía General de Pesca Marítima en las costas del mar Cantábrico (1770-1782)", *BRSBAP*, **48 (1-2)**.
- Bilbao Bilbao, L. M. (1979): "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII", *Historia del Pueblo Vasco*, Donostia, Erein, **2**.
- CiriQUIAÍN-Gaiztarro, M. (1986): *Los puertos marítimos del País Vasco*, Donostia, Txertoa.
- , (1961): *Los vascos en la pesca de la ballena*, Donostia, Biblioteca vascongada de los amigos del país.
- Erkoreka, J. I. (1991): *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzia.
- Fernández de Pinedo, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)*, Madrid, Siglo XXI. [Euskarazko bertsioa: *Euskal Herriko ekonomi hazkundea eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*, Bilbo, EHU, 1999].
- , (1983): "Estructura de los sectores agropecuarios y pesqueros vascos (1700-1890)", *9º Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Garate Ojanguren, M. (1990): *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*, Donostia.
- , (1982): "La Real Compañía Sardinera de Guetaria. Un estudio económico", *BRSBAP*, **38**.
- García de Cortázar, J.A. (1966): *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*, Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaina.
- Garmendia Arruabarrena, J. (1986): *Vascos en Cádiz: siglos XVII-XVIII*, Donostia, Dr Camino.
- Gracia Carcamo, J. A. (1979-1980): "La crisis de la pesca vizcaina en el final del Antiguo Régimen", *Anuario del Instituto de estudios marítimos <<Juan de la Cosa>>*, **3**.

- Huxley, S. (1984): "Los vascos y las pesquerías transatlánticas, 1517-1713", *Itsasoa*, Donostia, Etor, **III**.
- Imaz, J. M. (1944): *La industria pesquera de Guipúzcoa a fines del siglo XVI*, Donostia, Diputación Provincial de Guipúzcoa.
- López Losa, E. (1997): "Escabeche, salazón y conserva. Una primera aproximación a la transformación del pescado en el País Vasco (1795-1975)", *Las conservas de pescado en el País Vasco, Industria y patrimonio*, Donostia, Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Miguel, I. (1990): *El comercio hispanoamericano a través de Pasajes-San Sebastián (1778-1795)*, Donostia, Dr. Camino.
- Odrozola Oyarbide, L. (1997): *La construcción naval en Gipuzkoa siglo XVIII*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , (1994): "La industria naval guipuzcoana y la producción de navíos para el Rey (1650-1799)", *BRSBAP*, **28**.
- Tellechea Idígoras, J.I. (1988): *Otra cara de la Invencible: la participación vasca*. Donostia, Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones.
- , (1987): "Servicios de marinería de Guipúzcoa en el siglo XVI (1581-1587). Algunos documentos de la colección Vargas Ponce", *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, **21**.
- Zabala, A. (1983): *La función comercial del País Vasco en el siglo XVIII*, Donostia, Haranburu.

6) Gatazkak, harremanak, interesak, eta antzeko faktoreak ikertzen dituzten azken urteetako zenbait adibide.

- Angulo Morales, A. (2000): *Del éxito en los negocios al fracaso del Consulado. La formación de la burguesía mercantil de Vitoria (1670-1840)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aragón Ruano, A. (2001): *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna . Aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*, Donostia, Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- , (2002): "La conflictividad en torno al bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: Recorte y apropiación de los usos y bienes concejiles", *VIIª Reunión científica de la Fundación española de Historia Moderna*, Almagro, Universidad de Castilla-La Mancha.
- Aragón Ruano, A. eta Alberdi Lonbide, X. (2001): "La resistencia frente a la política de las autoridades de Marina en Guipúzcoa durante el período borbónico", *Poder, resistencia y conflicto en las Provincias Vascaas (siglos XV-XVIII)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Azpiazu Elorza, J.A. (1990): *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*, Donostia, Fundación Cultural Caja de Guipuzkoa.
- Basurto, R. (1983): *Comercio y burguesía mercantil de Bilbao en la segunda mitad del siglo XVIII*, Bilbo.
- Barkham, M. (1984): "La construcción naval en Zumaia, 1560-1600. Estructura y organización de una industria capitalista mercantil", *Itsasoa*, Donostia, Etor, **III**.

7) Idazlan honetan aipatutako gainontzeko lanak.

- Angulo Morales, A.; Porres Marijuan, R. eta Reguera, I.: *Historia del País Vasco. Edad Moderna (siglos XVI-XVIII)*, Donostia, Hiria.
- Olaizola, I. (1995): "La formación de las galaxias", *Aranzadi. Boletín de Astronomía*, **88**.
- Raphael, R. (2001): *A people's history of the american revolution*, New York, The new press.





